

HEZKUNTZA SISTEMA HERNANIN

Andoni Lizeaga Urdampilleta (SAREAN Elkarteko Koordinatzailea)

HEZKUNTZA SISTEMARI BEGIRADA OROKORRA

Jarraian aurkezten den idatzia 04-05 ikasturte amaieran eginga da. Bertan, datu eta iritzi asko aurkitu ahal izango dira, aurreiritzi batzuk ere bai. Ez da erraza lerro gutxi batzuetan hezkuntza esparruari begirada orokorra ematea, eta, luzetxo jo badut ere, kasu askotan, gehienetan, gehiago sakontzeko aukera ere bazegoen. Hurrengo legealdian zer gerta litekeen aurreikusi ahal izatea ere gustatuko litzaidake, baina azkenaldiko egoera politikoak ez du erraz uzten abentura horretan sartzea. Edozein kasutan, hezkuntzak azken urteotan hartutako joera, gaur egungo egoera, eta ondorioz, etorkizuneko erronka nagusiak zerrendatzen saiatu naiz.

Edonola ere, EAEko hezkuntza sistemaren egoera aztertzen hasi aurretik galdera bat egin nahiko nuke: "Ba al dago Euskal Hezkuntza Sistemarik?". Horri baiezkota ala ezezkoa erantzun beharko bagenio, zalantzarik gabe, "ez" izango litzateke nire erantzuna. Baina, bai esan dezakegula gurea, eta zehazkiago EAEkoa, sistema baten barruko eredu edo azpi-sistema dela, baina ez sistema bat bere osotasunean. Beraz, daukaguna beste sistema batzuen egokitzapen mugatua baino ez da, eta aurreantzean, hori kontuan izanda arituko naiz.

Eskola gaur egungo gizartearen. Gizartea etengabe aldatzen ari den zera dinamikoa da, baina azken urteotan bereziki azkar aldatzen ari da. Zenbaitek dioenez, nekazaritza iraultza eta industrializazioaren ostean, hirugarren iraultza sozialean murgilduta gaude, hots, ezagutzaren gizartera garamatzan iraultzan.

Irakaskuntzaren zeregin nagusietako bat ezagutza zabaltzea izanik, ikastetxeak ez dira aldaketa sozial horretatik at geratu. Horrekin batera, gizartearen funtzionamendua eta antolaketa ere aldatzen ari da. Lanaren eta merkataritzaren mundua eraldatze prozesuan da. Lehiakortasun handiagoa eskatzen da edozertarako, lanaren egonkortasuna murriztu egin da, kontsumorako joera areagotu, zerbitzu publikoen liberalizazioaren atarian omen gaude...

Gizarte aldakor horri premia berriak sortzen ari zaizkio, berriak edo orain beste era batera agertzen direnak: informazioarako eta komunikazioarako

teknologia berriak, eleaniztasuna, elkarbizitza, ekologia, sexu heziketa, kontsumo egoki eta osasuntsua, higiena, hiritartasuna, bide hezkuntza... Horiei guztiei erantzun egokia ematea eskatzen dio gizarteak gaur egungo eskolari. Eta horri orain arte familiak bere gain hartzen zituen beste hainbat ardura ere gehitzen zaizkio, neurri batean: giza balioetan oinarritutako heziketa, kultura tradizioen transmisioa... Gainera, berezko eremu naturala zabaltzea eskatu zaio eskolari. Gaur egun hezkuntza zerbitzua izateaz gain asistentziatzkoa ere bada, hau da, garraio zerbitzua, jantokia, eskolaz kanpoko jarduerak eta abar ere eskolaren esparruan sartzen dira.

Horretan guztian, ikastetxeak dikotomia baten barruan jokatu behar du: haurrak izan ditzakeen gaitasunen eta trebetasunen garapena ziurtatu behar du, mundu lehiakor honetan konpetentea izan dadin, eta, aldi berean, pertsona bezala hezteko lortu behar du, bere dohainak aurkitzen laguntzeaz gain, bere mugak ere onartzen erakutsi behar dio.

Euskal irakaskuntzak badu beste erronka bat: haurrek, kasu askotan, ez dute hezkuntza prozesua ama hizkuntzan egiten, beste batean baizik. Horrek etengabeko arreta eskatzen du haurrak hizkuntza horren aspektu guztiak bereganatu ditzan, eta horrekin batera, hizkuntza akademikoaz gain, harreman mota orotarako komunikazio tresna egokia garatu dezan.

Horrez gainera, badira eskola eta irakasleentzat oraindik nahiko berriak diren erronkak: familia desegituratuekiko eta kolektibo zehatzekiko arreta, premia bereziak dituzten haurren hezkuntza, ikasle etorkinen eskolatzea eta familia eredu berrien onarpena. Errealitate horiek ezagunagoak dira leku eta ikastetxe jakinetan, baina gero eta zabalduek daude eta egon behar dute, gainera. Horrek eskatzen du bai ikastetxeak bai irakasleak behar sozial horiei erantzuteko irekitasunez eta profesionalki prestatuta egotea.

Erronka berri horien guztien aurrean, bi noranzkoko diskurtsoa mantendu behar da hezkuntzaren eremutik:

- Alde batetik, gizarteari oro har, familiari, komunikabideei eta gizarte eragileei, beren erantzukizuna har dezaten eskatu behar zaie eta beren jokamoldearen garrantzia eta erant-

zukizun itzela azpimarratu, heziketa ez baita soilik eskolaren zeregina.

- Bestetik, hezkuntza administrazio, ikastetxe eta bertan aritzen diren profesionalengan, irakasleengan bereziki, behar eta erronka berri horiei erantzuteko jarrera sustatu behar da. Etengabeko formazioa eta aldaketarako prestutasuna funtsezko bi tresna izango ditu hezitzaileak egokitzapen horretarako.

Hezkuntza Sistema eredugarria. Mugak muga, eta hobetu beharrekoak tartean, Hezkuntza Sistema ona daukagula esan dezakegu lasai asko.

Orain dela hiru urte inguru, Hezkuntza Ministerio (Madrilgo CIDE) ikerlari batek, Javier Murillo jaunak, Donostian, EHUren udako ikastaroen programaren barruan ikastaro bat ematen ari zela, adierazi zuen Euskadi Erkidegoa eredugarria zela hezkuntza sistemaren aldeko apustuan eta antolakuntzan. Handik gutxira, bere eginkizunetatik kendu zuten adierazpen horiek egiteagatik. Guk, SAREAN Elkarteak, aukera izan genuen hitzaldi batera ekartzeko, eta bere balorazioa zertan oinarritzen zuen azaltzeko eskatu genion. Datu asko zituen garai hartan esku artean, eta Estatuko erkidegoen artean egindako konparaziotik abiatzen ziren bere argudioak. Kontrako edo ez hain aldeko babes ekonomikotik abiatuta, hiru ardatzetan oinarritzen zuen balorazioa:

- EAE garapen ekonomikoari dagokionez, BPGaren arabera, Estatuko bosgarrena da. Alabaina...
- Hezkuntza lege propioa duen bakarra da: Euskal Eskola Publikoaren Legea, dituen mugak dituela.
- EAEko hezkuntzak finantziario mailarik altuena du.
- Estatuko hezkuntza sisteman oinarri diren lau printzipioetan mailarik onena ematen du EAEkoak:
 - Parte hartzea: alde batetik, Eskola Kontseiluetan gurasoen parte hartze mailarik handiena du, eta bestetik, zuzendaritza taldea batzar organoa da.
 - Ikastetxeen autonomia: curriculumari dagokionez, erabilera askeko eskola ordu kopururik handiena dugu; antolakuntzari dagokionez, Ikasketa burua eta Idazkaria derrigorrez aginte organo izan behar dutela adierazten ez duen erkidego baka-rra da gurea, eta gutxienekoak azaldu ostean,

ikastetxeen aukeran uzten du an-tolaketa.

- Ekitatea: beketan eta ikasketetan laguntzeko diru gehien erabiltzen duen erkidegoa gara; sei urterekin eskolan jarraitzeko itxaropen mailarik handiena dugu, 13'5 urte; desbideratze curricularrean (dibertsifikazio curricularra) ari diren ikasle kopururik txikiena dugu (%1'7, estatuan %3); garantia sozialeko ikasle kopurua bikoitza da (ikasle guztiek tituluren bat lortzeko neurria da hau).
- Kalitatea: irakasleko ikasle kopururik txikiena (sare publikoan, Lehen Hezkuntzan, 15'9); irakasleen etengabeko formazioa sakon errotuta dago; ikasle errepikatzailerik gutxien daukagu, egokitasun mailarik handienarekin (13 urteko ikasleen %91 dagokion mailan dago); Bigarren Hezkuntzako Graduatua lortzen duen ikasle kopurua ere handiagoa da (Estatuan %75, EAE %88'9); 16-17 urterekin ikasketak uzten dituzten ikasle kopuru txikiena; Batxilergoan graduatutakoen mailarik handiena; selektibitatearen gaitz maila handiena...

Interesgarria, ezta? Horrek, ordea, ez du esan nahi dena ezin hobeto doanik. Estatuarekin konparatuta ondo gaude, eta OCDEko beste herrialdeekin konparatuta nahiko ondo. Baina guretzat hori dena hala dela jakitea eta, horrekin batera, maila horretara heltzen lagundu digun jarrera mantentzea da garrantzitsua; hau da, kritiko, autokritiko eta berritzaileak izatea eta ez lokartzea. Badugu zer hobetu, baina horretan hasi aurretik, tarte bat eskainiko diot gure hezkuntza sistema honelakoa izaten lagundu duten guztien artean gakoa izan duen eragileari: irakaslea.

Irakaslearen etengabeko prestakuntza eta aldaketarako prestasuna. Orain dela gutxi arte irakasleak ezagutza zeukan, eta ikasleak ezagutza hori jaso behar zuten: irakasleak azaldu, eta ikasleak ulertu, ahal bazuen, eta ikasi; xedea ikasleak ezagutza lortzea eta pilatzea zen. Gaur egun, helburua areago doa: ezagutza lortzeaz gain, bizitzarako tresnak ere lortu behar ditu ikasleak. Orain dela ia hamar urte Jacques Delorsek (UNESCO) definitutako hezkuntzaren lau zutabeak lortzea litzateke helburua: ezagutzak ikastea, egiten ikastea, elkarrekin bizitzen ikastea eta izaten ikastea. Horiei, azken urteotan bosgarren ardatza erantsi zaio: ingurunea zaintzen ikastea. Beraz, eskolaren munduan planteamenduak asko aldatu dira eta, hitzaren esanahiari begira, maisu-maistrak irakasleak baino gehiago hezitzaileak dira. Ikastetxearen barruan, antolamenduari dagokio-

Ikastetxearen barruan, antolamenduari dagokionez ere aldaketa nabariak gertatu dira, irakaslearen lana banakakoa izatetik taldekoa izatera igaro da. Horrek talde lana eskatzen du: gaiak elkar jartzea, adostea, lana ebaluatzea eta, sarritan, berriro aztertzea... Beste era batera esanda, ez da testu liburu bakar baten inguruan lan egiten, ikas-tetxeko proiektuen inguruan baizik; lehen, testu liburua zen ardatza, orain, berriz, elkarlana bila-tzen da.

Ikastetxe batzuetan besteetan baino lehenago hasi ziren urrats horiek egiten. Batzuk aitzindari izan dira planteamendu berritzaile horiek aurreikusten, eta dagoeneko bide luzea dute egin. Edonola ere, oro har, esan dezakegu gaur egun irakasle asko dagoela hezkuntza beharrei erantzuten diona. Zein dira jardun egoki horren adierazle nagusiak?

- Haurrarenaganako begirada enpatikoa: Ikaslea garatzen ari den pertsona den heinean, bere buruarenaganako konfiantza lortu behar du, izaten ikasi behar du. Horretan, irakasleak ulerkerria izan behar du harekiko eta itxaropen ona izan behar du, eta ikasleari adierazi egin behar dio, horrek ondo sentitzen lagunduko baitio. Era berean, malgutasunez jokatzuz, haurrari adinaren arabera erantzukizuna eska-tzen dio, eta akatsak ikasteko bide bezala era-biltzen ditu ikaslearekin.
- Ikasle aniztasunari arreta: irakasleak talde osoarekin eta, aldi berean, banakoekin aritzeko gaitasuna landu du. Taldearen garapen orokorraz gain, kide bakoitzaren eboluzioa zaintzen du. Horrez gainera, jarrera horiek ikasleei transmititzen ahalegintzen da, elkarrekin bizitzen laguntzen die.
- Irakaslea ikertzaile ere bada. Etengabe galde-tzen dio bere buruari nola irakatsi, zer tresna erabili, nolako taldeak antolatu, noiz landu... eta estrategia horien guztien ondorioak behatzen ditu, behar adinako doiketa edo berrikuntzak sartzeko.
- Horrez gain, ikasgelatik at, talde lanean aritzen da, lan dinamika zabal eta positiboekin. Bere kezka eta ezagutza beste irakasleekin parte-katzeko zabaltzen zaizkion esparruak biziki balaratzen ditu.
- Ahalegin berezia jartzen du gurasoekin eduki behar den harreman egokia bilatzeko, eskola eta familiaren arteko elkarlana sustatzeko xedez.
- Ikastetxearen funtzionamendua egokia izan dadin eskola komunitate osoaren ekarpena

beharrezkoa denez, irakasleak antolamendua eta kudeaketan ere parte hartzen du. Eta ez hori bakarrik, ikasketa proiektu bereziak koordinatzea, irakasle taldeen ordezkaritza betetzeko, jardura osagarrietan edo administrazio eta zuzendaritza lanetan jardutea behar izanez gero, ardura horiek hartzeko prest agertu ohi da.

Hobetu beharrekoak. Irakasleek aurretik azaldutako jarrerai eustea ezinbestekoa da, baina horrekin batera, euskal gizarteak, eta bereziki, bertako agintari politikoei ohartu behar dira Hezkuntzari garrantzia handiagoa eman behar zaiola. Eta horretarako, hainbat alderditan orain arte baino aha-legin handiagoa egin behar da. Honako hauek dira, nire ikuspegitik, datozen urteetan EAEko Hezkuntza Sistemak zaindu beharko lituzkeen ardatz eta arlo nagusiak, premia-azkoenak:

- **Hezkuntzako gastu publikoa.** Aurreko atalean Estatuarekiko konparazioarekin abiatu gara. Bada, horretara itzuliz, eta gastu publikoari dagokionez, EAEn askoz txikiagoa dela aipatu behar da. Espainia da, Greziaren ondoren, Europako Batasunaren barruan BPGaren ehuneko txikiena erabiltzen duena Hezkuntzan (2001ean 4'5). Bien bitartean, gure erkidegoan urte horretan bertan %3'8an geunden. Baina hori ez da okerre-na: gastuaren proportzioa jaitsi egin da azken legegaldian, 2005ean %3'5eko mailara jaitsi zen. Horiek ez dira, inola ere ez, europar parametroek aholkatzen dituzten zifrak: %6a da erreferentzia, hots, OCDEko herrialdeen batez bestekoa.

Hala ere, argitu behar da ekonomia hazkuntza garaian gaudenez, azken urteotan hezkuntzan inbertitutako diru kopuruak igo egin direla. Alabaina, hazkuntza horren zatirik handiena hitzartutako sarea (pribatua) laguntzeko erabili da. 2000-2005 urteen bitartean ikastetxe pribatuen finantziarioak izan duen igoera publikoena baino hiru aldiz handiagoa izan da (%26'0 eta %8'8, hurrenez hurren, KPIaren igoera kenduta). Hezkuntza Sistemaren enbopar sa-re publikoak izan behar duela uste eta defendatzen dugunontzat oso kezagarria da joera hori.

- **Hezkuntza eskaintzaren plangintza.** Eskola mapa berri beharra dago. Hamar urte dira gaur egungo mapa antolatzen hasi zela. Ordu-tik hona gizartearen eskakizunak, demografia, hirigintza, behar sozialak eta abar aldatu egin dira.

EAEko jaiotza tasak behea jo zuen 1994an, 15.428 jaiotzekin. Ordu-tik hona, urtez urte jaiotzak hazten ari dira: 1994-2002 urteen bitartean

%3, eta 2003an %6; 2003an 19.267 haur jaio zen [datu horiek eta idatzi honetan agertuko diren beste asko, Euskadiko Eskola Kontseiluak "EAEko irakaskuntzaren egoerari buruzko txostenak (2000/02 eta 2002/2004)" izenburua-rekin eginiko argitalpenetik hartuak dira. Era-kunde horren webgunean daude]. Hazkuntza horren eragina nabarmen antzematen da Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan, eta he-mendik bost urtera Bigarren Hezkuntzan ere nabaritzen hasiko da. Horri, gainera, etorkinen kopurua erantsi behar zaio.

Azken puntu horri dagokionez, azpimarratze-koa da ikasle etorkinen %75 sare publikoan dagoela eskolatuta. Eta kontuan izanik, EAEko bi ikastetxe izan ezik (Bilbo inguruan daude) beste guztiak hitzartuta daudela, hau da, diru publikoz hornituta, ez dirudi propor-tzioa egokia denik. Ez da zilegi bazterretan ghettoak sortzen uztea. Barrutietako Eskolatzeko Batzordeena da arrisku hori ekiditeko ardura, izan ere, horiek bermatu behar dute sareen eta sare bakoitzaren barruan ikastetxe guztien ar-tean modu orekatuan hartuko direla.

Mapa berritzerakoan, badira nabarmen eta berehala erantzutea eskatzen duten barrutiak, gehienak Bizkaian, gaur egungo eskari publi-koari erantzuteko ahalmenik ez baitaukate (EAE 56 eskola barrutitan dago banatuta). Ho-rrela, lurralde horretan 04-05 ikasturtean 481 haur geratu ziren 2 urteko eskola publikoetako geletan sartu ezinik. Hori Bizkaiko 2 urteko haurren %5'2 da, edo EAEko %2'64 (Bilboko hiriguneko egoera are larriagoa da: sare publi-koan plaza eskatu duen hirutik batek ez du lekurik izan).

- **Sareen arteko "oreka" delakoa.** Askotan aipa-tu da, eta legealdi honetan agintarien ahotan sarritan entzun dugu, hezkuntza sareen arteko oreka mantendu behar dela: %50 edo sare ba-koitza. Datu hori 1993ko Eskola Hitzarmenean oinarritzen da, baina horrela erabilia ez da zu-zena eta, nire ustez, merezi du pixka bat gai horretan sakontzea.

Hitzarmenak proposatzen zuen 91-92 ikastur-tean 3 urtetik derrigorrezko eskolatzeari amaitu arteko banaketa proportzioak mantentzea 97-98 ikasturtea arte. Baina, asmo hori ez da bete eta proposatutako epea aspalditxo pasa da. Are ge-hiago, hasierako urteetan galera izan zuen sare publikoak, azken urteetan erreku-peratzen ari bada ere. Taula honetan hori guztia ikus daite-ke, ikasle matrikulatuen ehunekoetan, ikastur-tez ikasturte:

Adin tartea	91-92	94-95	98-99	01-02	04-05
3-16	48,8	47'2	45'9	45'1	46'5
16-19	58,9	56'6	52'0	52'0	53'4

Alabaina, nolabaiteko sare publikoaren erreku-perazio horri ez dirudi hurrengo urteetan asko lagunduko dionik taula horretan agertzen ez den hasierako adin tartearen eboluzioak: 02-03an %53'8tik 49'5era jaitsi zen urte betean sare publikoa.

Hori dena ikusita, aurrerago aipatutako eskola mapa berregiterakoan kontuan izan beharko li-tzateke eskaintza publiko ez unibertsitario osoa, eta guztiari lotura egokia eman beharko litzaioke. Hasteko, premiazkoa da Haur Hez-kuntzako lehen adin tarteari ganoraz heltzea.

- **0-3 adin tartearen eskaintza.** Hezkuntza Sai-larentzat legealdi honetako lan ildo garrantzi-tsuenetako bat Haur Hezkuntzako 0-3 adin tar-tea arautzea eta antolatzea izan da. Ekimen ho-rren emaitzari gure esparrutik egiten diogun balorazioa ezin okerragoa da. Zaila da sinestea asmo horren atzean aritu denaren ardura gi-zarte osoaren ondarea den sare publikoa zain-tzea izan denik! Horri buruz Irakaskuntza Pu-blikoaren Mahaitik hainbat adierazpen egin di-ra eta hala Euskadiko Eskola Kontseiluak nola Arartekoak ere kezka adierazi diote Hezkuntza Administrazioari.

Jaurilaritzak 0-3 sare publikoan zabaltzeko har-tu duen bide bakarra partzuergoa izan da. Ez dut aukera hori desagokitzat jotzen, are gehia-go, kasu batzuetan biderik egokiena izan dai-teke, baina ez bakarra. Ildo hori hartzearekin batera, Hezkuntza Sailak baimen sorta ikaraga-rria zabaldu du sare pribatuan. Aldiz, sare pu-blikoko ikastetxeei espreski debekatu egin die aukera hori aztertu ere egitea, ezta guraso el-karteen bitartez antolatze ere. Horri gehitzen badiogu zein baldintzatan eskaini diren Hau-rreskola Partzuergoaren plazak, ezinbestekoa da agintari talde berriari hori guztia berriro azter dezan eskatzea:

- Estatuko aurreko gobernuaren planteamen-duak utzi eta adin tarte horri berriro izaera hezitzailea onetsi (hezitzailea soilik, eta ez hezitzailea eta asistentziala edo laguntza-koa). Lehen hala zen, LOGSEk 0-6 hezkuntza etapa bakartzat hartzen zuen. Gero LOCEk etapa bitan banatu zuen, 0-3 eta 3-6, eta lehe-nengoari laguntzako izaera ere erantsi zion. Titulu joko horren atzean, nagusiki, lan bal-dintzak merketzeko bidea baino ez dago.

- Ezinezkoa da eskaintza pribatua diru publiko hornitzea, eta horri esker, publikoan baino askoz merkeago izatea familiek pribatuan ordaindu beharreko kuota.
- Adin horretako haurrek dituzten oinarritzko beharrak (afektibitatea, garbitasuna, elikadura...) bereziki zaindu behar dira. Ez dirudi justifika daitekeenik Haurreskola Partzuergoak bere gain ez hartzea jantokiak antolatzeko ardura. Arlo horri dagokionez, hezitzaileak berak mikrouhinetan berotutako "potitoak" dira aurrera doan herri honetako arduradun politikoek egiten duten kalitatezko planteamendu serioena.
- Partzuergoa Eusko Jaurlaritzaren eta udalen artean sortzen da. Beraz, udal batek ez badu egoki ikusten planteamendu horretan sartzeari, inor ez da arduratuko herri horrek behar duen eskaintza publikoa bermatzeaz. Beste arrazoi batzuen artean, horregatik ere ireki behar dira beste bideak eskaintza publiko duina zabaltzeko.

- Ikastetxeen antolamendua.

- Ikastetxeen autonomia. Arlo zabala da hau, luze eta sakon jorratu beharrekoa. Hala ere, badira hainbat alderdi SAREANek antolatutako azken bi Topaketetan azpimarratzeko modukoak:

Gaur egun ikastetxeek duten autonomia maila sumatzen den beharra baino askoz txikiagoa da. Beharrak lau arlotan daude, zein bere neurrian: ekonomia eta azpiegiturak, antolamendua, arlo pedagogikoa eta langileen kudeaketa. Gabeziarik handiena azken horretan dago, baina arlo pedagogikoan ere behar handiak nabaritzen dira proiektuak garatu ahal izateko dauden baliabideei dagokionez. Ikastetxearen proiektuak dira, hala hezkuntza proiektua nola urteko plana eta zuzendaritza proiektuak, ikastetxe-ak engaiatzen dituzten plangintza tresnak, eta horiei egoki erantzun behar die Administrazioak.

Azpiegituren atalean, eskoletan obrak egin behar direnean, beharrezkoa da esparru teknikoan ari direnek ikastetxearekin harreman estua mantentzea eskola komunitatearen beharrak, nahiak eta iritziak ikuspegi teknikoarekin uztartu ahal izateko. Egin beharreko lanak handiak direnean, orokorrean, Hezkuntza Sailak hartzen du ardura. Baina ertainak edo txikiak direnean, udal gehienek ere parte hartzen dute, haiei baitagokie egoitzetako mantentze lanak (Haur eta Lehen Hez-

kuntzako ikastetxeetan). Prozesu horietan guztietan, oso gutxitan jasotzen da ikastetxearen iritzia. Ez dago inplikaturako alde guztiok bat egitera eramango dituen protokolorik, eta horrelako zerbaiten beharra nabaria da.

Egoitza berriak eraikitzerakoan ere bada zaindu beharreko beste aspektu bat: gutxieneko baldintzak 1537/2003 Errege Dekretuak zehazten ditu. Hori 1991ko beste baten moldaketa da, baina aldaketa gutxi batzuk baino ez ditu sartzen. Esan beharrik ere ez dago eskolari azken hamabost urteotan sortu zaizkion premiei aurre egiteko, gaurkotze nabarmenagoa behar dutela gutxieneko neurriok. Adibidez, hizkuntzetarako gelak edo ikasleen behar berezi eta laguntzetarako tokiak.

Baliabide ekonomikoen alorrean, ikastetxeetan ez da ezagutzen diru banaketarako erabiltzen diren moduluak zertan oinarritzen diren eta nola erabakitzen diren. Alderdi horrek argiagoa beharko luke, hezkuntza esparruko diruen publikotasuna zabaltzeko. Bestalde, onartezina da hornidura enpresen homologazio sistemak ezartzen duen muga, zeinaren eraginez derrigorrez saltzaile homologatu jakin batzuei soilik eros dakiekeen. Adibidez, informatika alorrean edo eskola altzarietan hori gertatzen da.

Autonomiaren zentzu zabalenari so, ikastetxeetan eskuduntza maila zabalagoa behar dela aldarrikatzearekin batera, ekitatea ziurtatu behar dela ikusten da. Hau da, ikastetxeek ematen duten zerbitzuaren kalitateak gutxieneko batzuk bete behar ditu guztiontzat, eta aldi berean, zaindu egin behar du aukera berdintasuna eta bakoitzak desberdin izateko daukan eskubidea.

Aukera berdintasuna zaintzeko, diru publiko hornitutako ikastetxe orok, publiko izan pribatua izan, muga bat du inola ere gaingitu beharko ez lukeena: ikasleak aukeratzeko bideak erabiltzea. Horrela bada, beharrezkoa da, alde batetik, matrikulatzeko prozedurak gardenak izatea, eta, bestetik, indarrean den arautegia ikastetxe guztiek betetzea (epeak, onarpen baremazioak, eskolatzea dohain izatea...).

- **Zuzendaritza.** Aurrerago aipatu den bezala, gizarteak gero eta eskari maila handiagoa egiten dio ikastetxeari. Behar sozialen aurrean, gero eta gehiago dira hezkuntza jardunean oinarrituta bideratu edo lortu nahi diren erantzunak.

Noski, horretarako eskoletan aritzen diren profesionalek gero eta trebetasun eta prestaketa handiagoa behar dute, eta ikastetxeen zuzendaritza ez da inola ere erronka horretatik at geratzen. Are gehiago, erronka eta zeregin horien eskakizun maila hain da handia (zuzendaritza taldeko kargu guztiei dagozkienak, ez zuzendarienak soilik), ezen ikastetxe askoren, eta oro har Hezkuntza Administrazioaren, arazo nagusietako bat zuzendari izateko hautagaiak lortzea izaten jarraitzen du.

Zuzendaritzarako derrigorrez edo beren borondatez izendatu diren jakitea ez da erraza; izan ere, kasu askotan ikastetxeko Eskola Kontseiluak proposatzen duena (formalki borondatezko izendapena litzateke) irakasle klustroaren nolabaiteko adostasunetik edo konpromisotik lortutako hautagaia izaten da. Eta oso arraroa da ikastetxe berean zuzendaritzarako hautagai bat baino gehiago izatea. Edonola ere, adierazgarria da azken izendatze prozesu ofizialean, 00-01 ikasturtekoan, lau urtetarako egin zen izendapen proportzioa: hirutik bakarra. Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan erdira ez zen iritsi, %46, eta Bigarren Hezkuntzan %11. Azaldu behar da, normalean, "borondatezko" hautagai zerrendak 4 urteko agintaldirako izendatuak izan zirela eta derrigorrezkoak urtebeterako.

Arazo horren mamira joanda, behar beharrezkoa da zuzendaritza lana erakargarriago bihurtzea, hor baitago benetako arazoa. Funtseskotzat jotzen da, hurrenez hurren, ondorengo alorretan hobetzea:

- Zuzendaritza taldeen lanak gizartearen, eskola komunitatearen, eta gehienbat, Hezkuntza Administrazioaren aldetik onarpen edo errekonozimendu handiagoa behar du.
- Zuzendaritza taldeek eskumen handiago behar dute ikastetxeko proiektuak garatu ahal izateko, eta, jakina, horietarako behar adina baliabide (pertsonala eta hornikuntza).
- Sustagarri gehiago behar dira: ordutegi eta egutegi malguak; pizgarri ekonomikoak; formazio zabala zuzendari izateko eta gero irakaskuntzara itzultzeko...

Kalitatearen Legeak nabarmen aldatuko luke ikastetxeetako zuzendaritza lanetan arituko

direnen hautaketa prozesua. Baina hura indarrean jarri bitartean, 03-04 ikasturte amaieran Hezkuntza Sailak karguan ari zirenen izendapena beste urte baterako luzatzea erabaki zuen.

Egoera kontuan izanik, espero zitekeen Hezkuntza Sailak hurrengo ikasturtean, 04-05ean, zuzendaritza taldeen hautaketan ikastetxeek zuten protagonismoa berreskuratu eta irakaskuntza publikoko eragile sozialen ekarpenak jasoko zituen dekretu bat landuko zuela. Horrela, 2005eko apirilean dekretu bat argitaratu zen: 1997tik indarrean zegoena oinarritzat hartu eta hainbat atal aldatuta Euskal Eskola Publikoaren Legea egokitzen zuen.

Moldaketa horrek alde biko balorazio jaso zuen SAREANetik:

- Era positiboan baloratu du ikastetxeek protagonismoa berreskuratzea zuzendaritza taldeak hautatzeko garaian, Euskal Eskola Publikoaren Legeak jasotzen duenaren ildotik eta Kalitatearen Legeak Administrazioari onartzen zion ahalmenaren kaltetan, hots, eskuduntza hau ikastetxearekin partekatzea.
- Alabaina, balorazio orokor oso ezkorra egin dio, ondorengo arrazoiengatik:
 - Ez diolako heltzen arazo nagusiari, hau da, ikastetxeen aginte ardurak hartzeko prest daudenen hautagai gabeziari. Hautagairik ezean ez du zentzu handirik hautaketa prozesua arautzea.
 - Dekretuaren argitaratze datak (ikastetxeetara maiatzean iritsi zen) ikastetxeen zuzendaritzetan sartu behar dutenen prestakuntzaren ganorazko planifikazio bat egiteko aukera deuseztatzen du. Aurreko dekretuarekiko hain aldaketa gutxi ez du hain berandu argitaratu izana justifikatzen.
 - Euskadiko Eskola Kontseiluak dekretu honi buruzko irizpenean adierazi zuen bezala, zalantzazkoa da bere kokapen legala, Lege Organikoa kontuan izan gabe osatu baita. Oso larria izango litzateke orain ikastetxeetan zuzendaritzak aukeratzeko gauzatuko liratekeen prozesu guztiak, zuzentasun ezagatik, aurrerago indargabetuta gelditzea.
 - Hezkuntza Sailari eskatzen zaio arazoari heltzea, eta kontuan hartzea elkarte ho-

nek, beste erakunde, eragile eta elkar-teekin batera, hainbat bider eman diz-kion egoeraren diagnosiak eta arazoa bideratzeko proposamenak (nagusiki aurrerago aipatu diren hobetu beharre-koak), eta horiek aplikatzen hastea.

-Curriculuma.

- **Hizkuntza ereduak.** Gai polemiko sama-rra bilakatu da alderdi hau: alde batetik, "etxe barruan" hainbat gorabehera sortu da. Amaitzeaz dagoen legealdi honen ha-sieran, Euskadiko Eskola Kontseiluak be-rak ere planteatu zuen hizkuntza ereduen sistemari buruz gogoeta egin beharra ze-goela. Jarraian, sortu berria zen ISEIk (Ira-kaskuntza Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea) krisialdi bat pairatu zuen hiz-kuntza ereduen araberrako emaitza ba-tzuen argitalpena zela-eta. Datu horiek hainbat alderdi ezkor uzten zituzten age-rian. Haien artean okerrera sare publiko-ko A ereduaren emaitza baxuagoak arlo gehienetan, eta zer esanik ez euskarari dagokionean. Baina azken horri buruz, datuaren balioa ez zen gehiegi aldatzen sare batetik bestera; hau da, gutxienero euskara maila lortzeko helburua oso urru-ti geratzen zaie eredu horretan da-biltzan guztiei, eta B eredukoei ere nahiko lor gaitza.

Hori guztia "etxean" gertatzen zen, eta kanpoan, Legebiltzarrean Sailburuari di-mititzeko eskatu zitzaion Hezkuntza Sai-lak ikasle etorkinentzako ikastetxeei go-mendatu zielako euskal ereduaren matri-kulatzera bultzatzeko. Eta espainiar esta-tutik ere planteamendu horien aurka ager-tu dira erakunde politikoak. Eta, azkenik, orain dela hilabete gutxi batzuk euskara-ren lorpenari dagokionean egindako az-terketa baten emaitzek kezka galantak ha-rrotu dituzte euskal hezkuntza sistemak eta horren barruan hizkuntza ereduen ba-naketak eragiten dituen emaitzei buruz (hurrengo puntuaren amaieran komenta-tuko dut ikerketa horri buruzko datuen bat).

Guk, SAREANek, eta beste hezkuntza era-gile askok ere bai, aspalditik diogu hiz-kuntza ereduen sistemaz ebaluaketa sa-kona egin beharra dagoela. Eta hori ez da oraindik egin. Aurreikusten dugu balora-zio batek gaur egungo sistema berrantolatzea eragingo lukeela, eta ziur aski, ere-duak desagerraraztea. Jabetzen gara azken

horrek, alegia, urte askotan halako aurre-rabidea ekarri duen ereduen sistema hori desagerrarazteak, arriskuak badituela, adibidez, ereduak berak eska-tzen duen euskararen gutxienero presen-tzia urrit-zea, kasu batzuetan. Baina horre-lako era-gozpenak nola kudeatu erabaki-tzea litza-teke arlo honek behar duen haus-narketa sakonaren beste alderdi bat.

Gaur egun hezkuntza eleanitzaz (euskara, gaztelera eta ingelesa) ari gara hizketan, baina ez dirudi zentzuzkoa, ikasle guz-tiontzako elebitasunaren helburua (euska-ra eta gaztelera) hain urruti egonik, arazo horri errotik heldu beharrean gutxi batzuk lortu ahal izango duten eleaniztasunaren helburua lehentasunezkoa izatea hezkun-tza politikarentzat. Ekimen batek ez du zertan bestea oztopatu, baina larritasunak guztiontzako oinarritzako elebitasun maila bermatuko duen hezkuntza sistema anto-latzea agintzen du.

- **Euskal curriculum.** Azkenaldi honetan Euskal Curriculumaren inguruan asko hitz egiten ari da irakaskuntza eragileen artean, eta jendaurrean ere aipatu da. Ba-tzuen arabera, ordea (tartean SAREAN), hain arlo garrantzitsua bultzatzeko hartu den bideari arriskuak ikusten dizkiogu eta horrela adierazi dugu hainbat esparrutan:
- Hasteko, Euskal Curriculum osatzearen beharra ikusten dugu, eta horrek gaur egungoa ordezkatu beharko lukee-la uste dugu. Horrek esan nahi du ikas-tetxe guztietan aplikatu beharko litzate-keela eta ez lukeela borondatezkoa izan behar (hori da hasierako asmoa; curri-culuma diseinatu eta hala nahi duen ikastetxeak erabakitzea). Ez litzateke egokia ikastetxe bakoitzaren hautuaren araberrakoa izatea etorkizuneko hiritar-rek jasoko litzuketen gutxienero edu-kiak. Ekitate eta herritartasunaren prin-tzipioen arabera, guztiontzat bermatu behar da oinarritzako ezagutza. Garrantzitsua eta beharrezkoa baldin bada he-rritar guztientzat, ezin da bakarrik ba-tzuen esku utzi.
- Ekimen hori bideratu dutenen asmoa eta lana aipagarria bada ere, gure ustez ez da egokia izan. Era horretako asmo bat sendotasunez abiatuko bada, gaian zerikusia duten guztien parte hartzea eta adostasuna beharrezkoak dira.

- Horregatik iruditzen zaigu Hezkuntza Sailak hartu beharko lukeela bere gain kudeaketa eta ardura osoa, hezkuntza eragile guztiak kontuan hartuta noski.

EAEko legealdi berriarekin, aurrekoan abiatutako ekimenari behar duen ildo hartzen asmatuko dugulakoan nago, eta horretan lehen aipatutako eragile guztiok izango dugu zeregina.

- **Laikotasuna.** Alderdi honek ere, gizarte alorreko beste batzuekin batera, polemika handia sortu du azkenaldian. SAREAN Elkartek joan den udazkenean eginiko Topaketetan hartu zuen lan nagusia Espainiako Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak aurkeztu duen Lege proposamena aztertzea izan zen. Bertan planteatzen ziren oinarritzko arauekin, orokorrean, adostasun maila nahiko handia agertu zen parte hartzaileen aldetik, baina ezadostasun nabarmena dago erlijio konfesionalaren irakaskuntza ikastetxeetan derrigorrez eskaini beharrearekin (adostasun maila neurtzeko 1etik 5erainoko eskalan, 1'2ko emaitza lortu zuen). Alabaina, ontzat ematen da erlijio ez konfesionalen inguruko formazioa, beti ere kritikotasuna, justizia, solidaritatea eta askatasuna bezalako oinarritzko giza balioen lanketarekin lotuta.

Horrela bada, legealdi berri honi une egokia irizten diot curriculum propioa lantzeko, ez hizkuntza ereduak birplanteatu eta euskal "tasunari" dagokion lekua bermatzeko soilik, baita iritzi edo sinesmen diskriminazio mota guztiak gainditzeko beharrezkoa den urratsa emateko ere.

- **Hobetu beharreko atal nagusia, sare publikoan sinetsi beharra.**

Hezkuntza Sistemak sare publikoa babestu eta sustatuko duen agente erakundea behar du.

EAEko Hezkuntza Sailak sarritan azaldu izan du bere baitan bi sare (batzuetan hiru esaten du) dituela, eta biak zaintzea dela bere ardura. Hori hala bada ere, hau da, diru publikoz hornitutako ikastetxe oro zaindu behar badu ere, inolako beldur, lotsa edo erreparorik gabe lehentasunez zaindu, babestu eta sustatu beharko luke sare publikoa.

Zergatik indartu beharko luke bereziki sare publikoa?

- Hasteko, bera delako gizarte osoarena eta gizarte osoaren zerbitzura dagoena. Beste era batera esanda, sare publikoak herri interesari erantzuten die.
- Hiritar guztiek onartuko lituzketen interesak asetzea bilatzen du; ez ideario edo interes zehatz (ez orokor) baten inguruan bildu direnena.
- Ekimen pribatuari bideragarri edota errentagarri ez zaizkion arazoez ere arduratzen da.
- Eskaintza publikoak, hezkuntza beharri erantzuteko plangintza orokor batean kokatuta egonik, hari erantzun eta haren arabera moldatzen delako. Herriaren ondarea da.

Baina Hezkuntza Administrazioak, urteak joan eta urteak etorri, ez du horrelako joerarik hartzen. Horregatik, sare publikoan gabiltzan askok hori defendatuko duen erakunde ofizial baten beharra ikusten dugu. Oso ondo aztertu beharko litzateke nolako osaera eduki beharko lukeen eta zein izango liratekeen bere eginkizunak, baina ezaugarriok behintzat izan beharko lituzke: gizarte aniztasuna ordezkatu beharko luke (hezkuntza esparruko eragileen ordezkaria zabala) eta nolabaiteko agente ahalmena onartu beharko litzaioke, hots, bere erabakiek izaera loteslea eduki beharko lukete Hezkuntza Sailarentzat.

Azken urteotan sare publikoan hainbat datu jaso ditugu kontuan hartzekoak, haren irudia indartzeaz benetan arduratzen den norbaiten esku baleude, euskal gizarteari jakinarazi lizkiokeenak. Adibide batzuk jartzearen:

- 2002ko maiatzean, Lehendakariak aginduta, prospekzio soziometriko bat egin zen (noiz edo noiz egitea ohikoa da). Bertan, Hezkuntzari buruzko hainbat galdera egiten ziren, eta sare publikoarentzat oso datu interesgarriak azaldu ziren. Gero, handik bi urtera, 2004ko urtarrilean, berriro egin zen galdeketa lan berdina, eta hobetu egin zen aurreko balorazioa.

Galdera sorta zabaletik bi arlotakoak jaso ditut ondorengo tauletan, aukera mailari eta asebetetze mailari dagozkionak.

Galdera bat zen: *Seme-alabaren bat derrigorrezko hezkuntzan matrikulatu beharko bazenu, zer zentro motatan matrikulatuko zenuke?*

	2002ko maiatza (%)	2004ko urtarrila (%)
Eskola publiko batean	31	32
Ikastola publiko batean	22	26
Eskola pribatu batean	20	20
Ikastola pribatu batean	11	10
Ez daki / ez du erantzun	17	12

Beraz, erantzuna eman dutenetik sare publikoa aukeratuko lukete:

	2002ko maiatza (%)	2004ko urtarrila (%)
Eskola - ikastola publikoa	63	66

Beste galdera: *Gaur egun Euskadin dagoen hezkuntza nolakoa da zure ustez: ona, hala nolakoa edo txarra?*

	2002ko maiatza (%)	2004ko urtarrila (%)		
		publikoan	pribatuan	
Ona	60	67	71	68
Hala nolakoa	26	21	21	27
Txarra	6	3	3	2
E.d. /e.e.	8	9	5	4

Oraingo honetatik atera daitekeen ondorio nagusia da gizartea oro har, gustura dagoela egiten duen aukerarekin eta asebetetze maila hori igo egin dela azken urteetan. Eta gainera, seme-alabak sare publikoan dituztenak (%71) sare pribatuan dituztenak baino (%68) zertxobait gusturago daudela. Gurasoek, sarea edozein delarik, hobekien baloratzen dituzten arrazoien artean, honako hauek dira hiru lehenengoak: irakaskuntzaren kalitatea, ikastetxearen hezkuntza proiektua eta irakasleen gaitasuna. Horrez gainera, ikastetxe publikoetakoek hurbiltasuna estimu handitan dute.

- Ikastetxe publikoen %71k irakasleen prestakuntza proiektua eduki du 04-05 ikasturtean. Kontuan izanik borondatezko aukera dela, hau da, ez dagoela inolako lege edo araurik ikastetxe publikoetan irakasleen etengabeko prestakuntza antolatzeraz behartzen duenik, datu hori irakasleen konpromiso profesionalaren adierazletzat har daiteke. Pribatuan erreferentzia hori %34koa da, baina sare bakoitzaren lan egiteko era desberdina denez, informazio hau ezin da konparazio gisa erabili.

Ikastetxean eginiko formazioaz gainera, irakasle asko dira kanpoan, Hezkuntza Sistemaren beste erakundeetan, edo haien bidez, ikastaro eta mintegietan dabilzanak. Prestakuntza proiektuak honela banatzen dira arloen arabera:

Arloa	Proiektu kopurua EAEn, 04-05ean
IKT (teknologia berriak)	291
Hizkuntza prozesuak	129
Aniztasuna Elkarbizitza	114
Kalitatea	16
Metodologia, ebaluaketa eta besteak	164
GUZTIRA	714

Aipamen bat egin nahi nioke hirugarren multzoari, "elkarbizitza eta aniztasunaren trantseko proiektuei". Gaur egun arlo horrek lehen-tasuneko esparrua hartzen du irakasleen prestakuntza premien barruan. Kontuan izan behar da formazio proiektuak ikasturte amaieran erabakitzen direla ikastetxeetan, beraz, azken datuok, aurreko ikasturteko erabakien ondorio dira. Horrekin esan nahi dut ikasturte honetan protagonista tamalgarria izan den bullying-aren gaia aspalditxotik agertzen dela irakasleen kezka eremuan eta lan handia eginga dela (01-02an 130 proiektu izan ziren eta 02-03an 140). Zalantzarik gabe, etengabe zaindu beharreko arazoa da, eta horretan jarraituko dute irakasleek.

- EAEn Haur Hezkuntzako 3 urteko gelatan D ereduaren dauden 3 ikasleek 2 sare publikoan daude.
- Sare publikoko 3 urteko ikasleen %78'9 D ereduaren daude, eta %16'5 B ereduaren.
- Eta 04-05 ikasturte amaieran halako kezka sorrarazi duen beste azterketa baten emaitzetan ere bada datu interesgarriarik. ISEI-IVEIk DBHko 4. mailako ikasleei egindako euskara-ren B2 mailari buruzko ebaluazioaz ari naiz. Bertan, ondoko taulan ikus daitekeen bezala, sare publikoko ikasleek sare pribatukoek baino emaitza hobea lortzen dutela agertzen da:

Froga gaititu dute (%)	
Sare publikoan	51,7
Sare pribatuan	43,6

Froga gaititu dute (%)	Sare publikoan	Sare pribatuan
Euskaraz ez dakiten familietatik	40,4	37,3
Euskaraz badakiten familietatik	74,5	69,5

Herritarrek hezkuntza publikoarekiko eduki leza- keten harrotasuna sustatuko luketen datu horiek guztiak azaltzeaz ez da agintari publikorik ardura- tu. Inoiz zabaldu badira ere, Irakaskuntza Publi- koaren Mahaitik edo bertako kideren edo kide den taldeetako baten eskutik izan da.

HEZKUNTZA HERNANIN

Hezkuntza sistemari emandako begiradan adie- razten nuen antzera, herri honek baditu aipagarri egiten duten hainbat alderdi, baina hobetu beha- rreko batzuk ere baditu. Hurrengo lerroetan errea- litate horri guztiari gainbegiratu bat ematen ahale- ginduko naiz.

Herri eredugarria. Hernanik baditu berezitasun aipagarriak aurretik deskribatu den sistemari da- gokionez. Udalerriak bost ikastetxe ditu, lau hiri- gunean eta bat Ereñotzun, eskola txikia da hau. Horietatik lau publikoak dira. Horiez gain, Hel- duentzako Hezkuntza ematen duen ikastetxea ere badu. Denera, 2 urtetik helduen irakaskuntzara bi- tartean, 2632 ikasle aritu dira 04-05 ikasturtean. Horietatik %90 baino gehiago sare publikoan.

Herriko Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza ere badute, eta hori sare publikoko ikastetxeetan salbuespena da. Hezkuntza erreformaren ondorioz eskola mapa antolatu zenenean (1997an), Hezkuntza Sailak har- tu zuen joera orokorra 2-12 urte bitarteko ikaste- txekak alde batetik eta 12-18 urteko bitartekoak bes- tetik antolatzekoa izan zen. Hernaniko kasuan, ha- siera batean asmoa horrelako zerbait planteatzea izan bazen ere, azkenik 2-16ko hiru eta 16-18ko ikastetxe bat geratu ziren, nahiz eta kasu guztietan egoitza batean baino gehiagotan banatuta egon.

Hezkuntza eskaintza gehiena euskaraz egiten da. Haur Hezkuntzako bi zikloetan eta Lehen Hez- kuntza osoan D eredu baina ez da ematen. Guz- tira 1619 ikasle, 97 taldetan banatuta. Horrez gain, sare publikoan DBH eta Batxilergoak, guztiak, D eredu baina ematen dira: DBHn 434 ikasle, 24 talde- tan, eta hurrengoetan 113 ikasle, 4 taldetan. Sare

pribatuko DBH B eredu baina ematen da: 90 ikasle 5 taldetan. Beraz, zer hobeturik badagoen arren, euskararen normalizazioan herriak aurrerakada handia egin duela esan daiteke, bereziki inguruko udalerriekin konparatzen badugu. Derrigorrezko Hezkuntzako ikasle adinari dagozkion 16 urte bi- tarteko ikasketa guztiak D eta B eredu baina egiten dira (2053 eta 434 ikasle).

A ereduak Helduen Hezkuntzan eta Lanbide Hezi- ketan bakarrik erabiltzen dira: 224 ikasle heldu 21 taldetan, eta goi mailako lanbide heziketako 28 ikasle 2 taldetan, sare publikoan; erdi mailako lan- bide heziketan 42 ikasle, 2 taldetan. Horrek, guz- tira, eskaintzaren %11'1 baino ez du hartzen.

Horrez gain, benetan aipagarria iruditzen zait Hernanin dagoen eskolaz kanpoko jarduera osa- garri kopurua eta maila. Heziketa, edozein ikaste- txetan bezala, ez da eskola ordu baina bukatzen. Lehen EAEko Hezkuntza Sistema eredu baina dela esan badugu, beste hainbeste esango nuke Herna- nikoari buruz, eta oraingoan adierazletzat hartuko nituzke, aurreko lerroetan aipatutakoez gainera, herrian guraso bezala urtez urte ikusten ditudan hainbat emankizun. Alde batetik kirol eremu- ko ekintzak daude, eta bestetik, musika eta kultura arlokoak. Kirol esparruko bilerak eta ekitaldiak, inolako garrantzirik kendu gabe, inguruko herrie- takoen antzekoak direlakoan nago. Baina izaten dira hainbat ekitaldi, urteko une jakin batzuetan eta bereziki ikasturte amaieran, herri bizi eta parte hartzailearen ikur bihurtzen direnak. Baten bat ai- patzearren, San Joanetako Iragarpen emanaldia, Preludio Txikia, ekarri nahiko nuke gogora, bertan herriko talde eta ikastetxe guzti guztiek batera parte hartzen baitute. Era berean, hunkigarria izan zen herriko ikastetxe guztiek batera landutako ber- tsogintza jaialdia, non adin tarte bateko ikasleek, taldeka eta elkarren osagarri, urtean zehar eginiko lanari amaiera emanaz jaialdi bikaina eskaini zigu- ten gurasoak, denoi batera, herriko eskola guztiok batera. Horrelako uneek herria kohesionatzen la- guntzen dute, eta bereziki, etorkizuna lantzen.

Indartu beharrak. Hernanin, beste herri askotan bezala, eskaintzaren eta eskariaren arteko uztartze arazoa dago, eta horrelakoetan gertatzen denez, Euskal Eskola Publikoaren Legean bertan jasota dauden bi printzipio nagusik elkar jotzen dute: eskola plangintzak eta aukeratzeko eskubideak. Biak, lege honen 13. atalean jasotzen dira:

- “Euskal eskola publikoan, ikastetxeetarako sarbidea bermatuko da ezar dadin plangintzaren barruan, beste zenbait irizpideren artean, eskaintza eskaerari egokitzea hartuko dela kontuan. Ikastetxeetan sar- tzeko mugapen orokor gisa ikastetxeon hezkuntza eskaintzari darizkionak besterik ezingo dira ezarri,

finka dadin plangintzaren arabera." Hau da, eskaintzaren plangintza egin behar da eta eskola batean plaza lortzeko muga bakarra eskaintza kopuruak berak markatzen du.

- "Gurasoek edo tutoreek dute ikastetxea askatasunez aukeratzeko eskubideaz baliatzeko ahalmena." Hau da, gurasoek ikastetxea aukeratzeko eskubidea dute.

Baina nola aukeratu gura den eskola horretan ez bada behar adina plazarik? Kasu horietarako legeak prozedura bat ezartzen du, zeinaren arabera familiaren urteko irabaziek (zenbat eta txikiago hobe kasu honetan), ikastetxearekiko hurbiltasunak eta bertan senideren bat edukitzeak markatu-ko du plaza lortzeko aukera.

Hainbat herritan, kaleak multzoka edo zatika ikastetxeei atxikitzea izan daiteke irtenbidea, eta izaten da. Aurten bertan, adibidez, Eibarren edo Errenterian horrelako neurriak hartu dira (honekin ez dut esan nahi prozesu horietan arazorik izan ez denik). Baina, nire ustez, Hernaniren kasuan, prozedura hori ez da baliagarria. Horretarako beharrezkoa da familiek ikastetxeen artean, aukera modura, halako desberdintasunik ez sumatzea batetik bestera, eta prest egotea batera edo bestera "zonifikazioaren" arabera joateko. Hernanin, ordea, fenomeno zaila antzematen da: badira familiak herriko ikastetxe bat hautatuko luketenak, baina han aukerarik izan ezean, herriko beste aukera bat ontzat eman ordez, nahiago dutenak herritik atera, Donostiara gehienetan. Zergatik gertatzen ote da hori? Proiektu pedagogikoen arteko aldeengatik, tradizioagatik, aurreiritzien eraginez, denetatik pixka bat... ? Batek daki.

Beraz, Hernanin beste era bateko planteamenduren bat egin beharra dago, eta dagoneko, bide horretatik, lehen urratsak egin dira. Hernani Institutuko zuzendariak joan den apirilean, Hernaniko Kronikaren bidez, beste datu eta iritzi interesgarri batzuen artean iragartzen zuen Jaurlaritzak proposamena egina duela DBH osoa zentro bakarrean biltzeko. Baina, artikulu hartan agertzen zen asmoak, batxilergoko matrikulazioaren inguruan izan baitzen, ez zuen jasotzen 2-18 bitarteko eskaintza osoaren planteamendu orokorra nondik ikusten duen Administrazioak.

Hezkuntza Sailaren Plangintza Atalak baditu hainbat aurreikuspen eginak, plangintzaren ikuspegitik nahiko zentzuzkoak diruditenak. Alabaina, kontuan izan behar da paperaren gainean eta kopuruei begira oso bideragarria izan litekeen asmoa, hezkuntza proiektuak eta ikastetxeen egitasmoak bateratzeari dagokionez, oso konplexua izatea. Hala eta guztiz ere, baikortasunez ikusten dut egitasmo hori, izan ere, ez da "zonifikazioan"

oinarritutako planteamendutik abiatzen, baizik eta herriaren berezitasuna kontuan hartuta eta familien aukeraketari irtenbide egokia nola eman aztertutik. Hona planteamendu horren ardatzak:

- Hasteko, Hezkuntza Sailak 2 urtetik 18 urte bitarteko tartea antolatzeko ardura onartzen du, baita Helduen Hezkuntza ere. Beraz, planteamendu osoa egitekotan abiapuntu okerra irizten diot, ez baitu 0-3 adin tartea (edo 0-2 nahi bada) aintzat hartzen haren kezken artean. Horrela bada, gauzak orain dauden bezala, adin horretan dagoen eskaintza gabezia gaindituz gero, Haurreskolak Partzuergoaren bidez zabaltzea baino ez zaio geratzen Hernaniko Udalari.
- 2 urtetik gorako ikas mailei dagokionez, haur kopuruari erreparatuta antzematen da Inmaculada eta Elizatxo egonkor daudela bat eta bi lerroekin, hurrenez hurren, Txirrita ere bere mailan ondo mantentzen dela (gainera, inguruan eraikitzen ari diren etxe berrieke eta jangela zerbitzua irekitzearekin, etorkizun oparoa itxaro dakioke), baina Urumea hiru lerrotara pasatzeko muga mugan dabilela eta Langilek lautarako bidea hartu duela jada.

Horrek espazio arazoak eragiten ditu plangintzari dagokionez. Non kokatu lerro berri horiek? Eta hori guztia, plangintza arduratsuen ikuspegitik herrian dauden baliabideak erabiliz egitea litzateke egokiena. Hau da, ahal dela eraikuntza berririk egin gabe.

Aukera bat, une honetan Plangintza Atalak bultzatuko lukeena honako hau da:

- Bigarren Hezkuntzako eremu bakar bat osatu, fisikoki Institutua, Santa Barbara eta Karmelo Labaka egoitzetan banatuta.
- Aukera horren barruan honako aukera omen legoke: Karmelo Labaka egoitza Institutu atzean dagoen orube batera eramatea, nola baiteko eraikuntza-truke bat edo eginez. Beraz, bide horrek, oraingoz bata ala bestea suposatzen du, ez bat gehiago.
- BHko eremu horrek aukera bat baino gehiago ematen ditu:
 - Guztia BHI (Bigarren Hezkuntzako Ikastetxea) bakarra.
 - DBH (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza) eta DBHO (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza Ondorengoa) bereizita.
 - DBH bat eta DBH-DBHO bat.

- Hori lortuko balitz, Elkano kaleko egoitzak aukera emango lioke Urumeari, behar iza-nez gero, hirugarren lerroa zabaltzeko. Eta Gabriel Zelaia egoitzak Langileren laugarren lerroa ahalbidetuko luke.
- EPAk (Helduen Hezkuntza) Antziolan jarraituko luke.

Asmo horiek, ordea, oinarri oinarritik ikastetxeetako ordezkari eta Hezkuntzako teknikarien artean adostu beharreko alderdiak dira, eta hori 05-06 ikasturtean zehar landu eta lortu nahi du Plangintzak.

Zaindu beharrekoa. Datu interesgarriak aurkez ditzakegu hernaniarren eskola aukerez, izan ere, herritik kanpora ateratzeko joera jaisten ari da azken urteotan, nabarmen, eta gaur egun, Hernaniko ikasle gehienak bertan geratzen dira ikas-ten.

Horrela zioen aurrerago aipatu dugun artikuluan Hernaniko Institutuko zuzendariak: 05-06 ikasturterako batxilergoa egitea erabaki zuten hernaniarretatik %80k bertako institutuan egitea espero zutela iragartzen zuen. Kontuan izanik 03-04an batxilergoko ikasle hernaniarren %58 matrikulatu zela bertan eta 04-05ean %77, ez dirudi aurreikuspen desbideratua denik.

Haur Hezkuntzari erreparatzen badiogu, Hernanin jaiotako en tasekin erkatuz honako ehunekoak ateratzen zaizkigu herriko ikastetxeetan matrikulaturik:

	2000	2001	2002
Jaiotako haurren kopurua	189	191	184
Horietatik Hernanin matrikulatuak	%83'0	%87'9	%97'2

Haur Hezkuntzatik Lehen Hezkuntzarako urratsean 04-05 matrikulatuta egon direnetik hurrengo ikasturtean jarraitzeko asmoa kopuru horrek berak adierazi du (%99'4). Eta Lehen Hezkuntzatik Bigarrengorako urratsean ikastetxeen artean aldaketa txiki batzuk gertatu dira, baina kopuru orokorra zertxobait igo egin da (%2'9). Beraz, egoera egonkortzen ari dela esan daiteke.

Faktore asko izango dira herrian geratzeko joera baikor hori eragin dutenak, baina azken urteetan ikastetxe guztiek batera egin dituzten aurkezpenek zerikusia izan dutelakoan nago. Baita atal honen aurreneko puntuan aipatu dudan giro eredu-garri horren funtsean dagoenak ere. Edonola ere, zaindu beharreko alorra izango da aurrerantzean ere.

SAREAN ELKARTEA

"SAREAN - Euskal Eskola Publikoak Sarean" Euskal Autonomia Erkidegoko Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetako zuzendarien elkarte da. Zuzendari diogunean ikastetxe bateko zuzendaritza lanetan ari den pertsonaz ari gara, izan zuzendari, ikasketaburu, idazkari edo bestelakoak. Multzo horretan hezkuntza sistemaren laguntza erakundeetan ari diren kideak ere sartzen ditugu.

Noiz eta zergatik sortu zen SAREAN. Zergatik sortu zen era honetako elkarte bat? Antzeko kezak eta elkarrenganako babes beharrak antzeman litezke ekimenaren oinarrian. Horrez gain, era honetako edozein talderen sorreran agertzen diren ezaugarriok ere bazituen, eta baditu oraindik, gero elkarte gisa finkatu den talde honek: asko ez izatea, ahalegin gehigarri bat egiteko prest egotea, arazo komunak edukitzea, horiek azaleratzeko premia izatea eta elkarlanerako zegoen egoeraz baliatzean asmatzea.

1996ko maiatzean izan zen historia horren sorrera, Hezkuntza Sailak antolatutako zuzendaritza taldeentzako prestakuntza ikastaroetan elkar ezagututako hainbat kidek egun erdiko topaketa antolatzeari lortu zutenean. Hogeita hamarren bat lagun bildu ziren, EAEko hiru lurraldeetakoak, eta ikastetxeetako koordinazioaz aritu ziren lanean, talde txikietan lehenbizi, eta ondoren, talde nagusian, kezak eta proposamenak bateratuz.

Hortik aurrera, talde eragile batek bere gain hartu zuen ikastetxeen arteko harremanak sendotzeko eta lantzeko aukera emango zuten bidean jorratzen hastea; zortzi zirenez "Zortziko Taldea" deitu zioten. Baina, partaidetza areagotu egin zen eta horrek izen aldaketa eragin zuen "Zortziko Nagusia". Horiengan, beste batzuen artean, hausnarketa hauek azaleratzen ziren:

- Nahiz eta ikastetxe bakoitzak bere berezitasunak izan, guztietan sortzen ziren arazoak eta zailtasunak oso antzekoak ziren.
- Eskola bakoitzeko ordezkariak beren kabuz ari ziren arazo horien irtenbideak lortu nahian.
- Kasu gehienetan Administrazioarekin izan beharreko harremanak ez zeukan behar adinako eraginkortasunik.

Koordinazio talde honek, ikastetxe publikoetako zuzendari taldeetako kideen Topaketei bultzada eman zion. Horietan, unean uneko gaiak jorratzen ziren, handik ateratako ondorioen berri Administrazioari luzatzeko asmoz.

Horrela, IV. Topaketak iritsi ziren eta azpiegiturak jauzi nabarmena egin zuen. Koordinazio taldeak eta gainontzeko guztiak berdin jarraituko bazuen ere, mugimendua erakunde izatera iritsi zen, gaur egun ezagutzen den izenarekin: "SAREAN, Euskal eskola publikoak sarean". Hori 1998ko maiatzean izan zen eta elkarteari 34 ikastetxek eman zioten sorrera. Geroztik, XVIII. Topaketak egitera iritsi gara, 2005eko maiatzean. Gutxi gorabehera, jardunaldietan 100 pertsona inguruk parte hartzen du, nagusiki zuzendaritza esparruan dabilen ki-deak, baina baita guraso, sindikatu, unibertsitateko irakasle eta Hezkuntza Administrazioako ordezkariak ere. Eta elkartea 158 ikastetxetako kidek osatzen dute.

Topaketak, elkartearen helburu nagusi diren bi ardatzak lantzeko baliagarri izateaz gain, hots, ikastetxeen arteko harremanak sendotzea eta Administrazioarekin komunikazio bideak garatzea, zuzendaritza lana burutzen duten profesionalak harremanetan jartzeko eta beren esperientziak elkar trukatzeko aukera eskaintzen duten gunek dira.

Elkartek era irekian planteatzen du bere jarduna, ahalik eta parte hartze zabalena lortzeko asmoz. Proposamenak bideratzerakoan zenbat eta inplikatu gehiagoren iritzia kontuan izan, orduan eta oinarri sendoagoa izango du erakundearen ekarpenak. Horregatik: Zortziko Nagusiaren bilerak irekiak dira eta deialdiak kide guztiei zabaltzen zaizkie, eta topaketetara ikastetxe guztietako ordezkariak gonbidatzen dira, SAREANeko kide izan ala ez, era berean, sindikatu, guraso elkarte eta hezkuntza alorreko beste hainbat erakunde.

Hezkuntza Saileko arduradunekin harremanetarako bideak irekitzeko berebiziko garrantzia du. Azken batean, sistemaren antolakuntza eta kudeaketa lan nagusietan ari direnek entzun beharko dituzte gure asmo eta ideiak. Gainera, elkarrizketarako bideak sortze horrek, bigarren ondorio gisa, neurri batean komunikabideak zeregin horretarako erabili beharra ekiditea ekarri du. Geroztik, hedabideen aurrean gehiago kezkatzen gaitu zertan ari garen

azaltzeak, zelako gabeziak dauzkagun azpimarratzeko baino, hots, irudia zaintzea. Hala ere, auto-kritika eginez, onartu beharra daukagu oraindik kritikarako joera handi samarra daukagula eta, ikusirik zenbat bertute dauzkagun herri honi azaltzeko, ardura gehiagorekin hartu beharko genuke Euskal Eskola Publikoaren gune sendotan oinarritutako aldarrikapena.

Zer ekarpen egin dio SAREANek hezkuntzari?

Elkartearen lorpenik handiena erakundearen helburu nagusien bitartez jardutea da

(ikus www.sarean.net). Hau da, sorrerako hutsune hura neurri batean gainditu da. Gaur egun, kezkarren bat daukan zuzendari batek, badauka nora jo bere iritzia azaltzeko, kezka hori berea den soilik ala orokorra den jakiteko, eta, sakondu nahi izango balu, bere lana ekartzeko. Bestalde, Administrazioarekin, oraindik zer hobetu baldin badago ere, solaskidetzarako bidea irekita dago eta urtero Topaketetatik eta beste lanetatik sortutako txostenak aurkezten dizkio.

SAREANek beste hezkuntza eragileekin ere badu harremana. Aipatzekoa da Irakaskuntza Publikoaren Mahaia, non sare publikoko ordezkariak (sindikatu guztiak, guraso elkarteak, Sortzen-Ikasbatuaz, Bihe eta Haur Eskolen Koordinakundea) elkarren berri izan, hausnartu eta ekimenak adosten dituzten. Era berean, Euskal Herriko Unibertsitatearekin ere baditu loturak eta hainbat lanetan (jardunaldiak, ikerketak...) laguntzen dio.

Horiez gain, azpimarratzekoa da, gure ustez, SAREANek sare publikoaren irudia hobetzen egin duen lana hedabideetan. Urrats garrantzitsua egin dugulakoan gaude. Duela urte batzuk arte sare publikoaz hitz egitea arazoez soilik hitz egitea zen. Aipamen horren lekuko izan nahi du idatzi honek, non hobetu beharrak azaldu badira ere, ikuspegi baikorretik bereziki azpimarratu nahi izan dira indar guneak eta etorkizuneko erronkak, euskal gizarteak merezi duen hezkuntza zerbitzurik duinena lor dezan.